

ELGOIBAR

Ikastola, Herri Eskola, Meka eta Institutuko ikasleek herriko bederatzi eragileren webguneak sortu dituzte

Ekimen berri hau Udalak, Elgoibarko Izarrak eta Puntueus Fundazioak ingurune digitalean euskararen presentzia sustatzeko bultzatu duten 'Elgoibartik Mundura' egitasmoaren parte da

JABI LEON

ELGOIBAR. Udalak ingurune digitalean euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko 'Elgoibartik Mundura' proiektu berritzailea abiatu zuen urte honen hasieran Elgoibarko Izarra elkartearen eta Puntueus Fundazioarekin elkarlanean; eta ekimenak dagoeneko eman ditu aurreneko fruituak.

Izan ere, herriko lau ikastetxeetako ikasleek Elgoibarko bederatzi elkarte edota eragileren webguneak sortu dituzte proiektu honen baitan; ingurune digitalean horien presentzia bermatuz. Esan beharrik ez dago ekimenean parte hartzeraz animatu diren eragileren webgune berri hauetan euskararen presentzia nagusi dela eta, aldi berean, guztiek .eus domeinuarekin bat egin dutela.

Webguneak diseinatu eta sortzeko lana Herri Eskolako, Ikastolako, Elgoibar BHI Institutuko eta Meka Lanbide Heziketa zentroko ikasleek egin dute.

Herri Eskolako gazteek beren ikastetxeko Kalamua guraso elkarteko webgunea sortu dute; Ikastolako ikasleek Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako, Haizea emakume taldeko eta Club

Deportivo Elgoibarko webguneak egin dituzte; Meka ikastetxeko ikasleek Elgoibarko Jubilatuen Biltokiko ataria sortu dute eta Institutuko gazteek Egur arte tailerraren, Zubi Ondo xake elkartearen, Atxutxamika aisialdi elkartearen eta Mauxitxa txarangaren webguneak prestatu dituzte.

Eskertza eta aurkezpena

Proiektuan inplikaturako alde guztietako ordezkariak (Udala, Elgoibarko Izarra, Puntueus Fundazioa, ikastetxeak eta onuradunak izan diren herriko elkarte eta eragileak) joan den asteartean elkartu ziren Aita Agirre kultur-gunean egitasmoa aurrera eramateko lanean aritu diren ikasleekin, beti ere, azken hauek egingadako lana eskertu eta sortutako webguneak aurkezteko.

Lorea Argarate zientzialari, dibulgatzaile eta sortzaileak gidatu zuen ekitaldia eta bertan Maialen Gurrutxaga alkateak, Amaia Sastre Elgoibarko Izarra elkartearen presidentea, eta Lorea Arakistain Puntueus Fundazioko ordezkariak hartu zuten hitza.

Hirurak «oso pozik» agertu ziren 'Elgoibartik Mundura' egitasmoaren arrakastagatik eta beren borondatea agertu zuten «ildo beretik eta elkarlanetik lanean jarraitzeko».

Webguneak sortuta, hurrengo erronka hauek bizirik mantentzea izango da. Horretarako, formakuntza eskainiko zaie irailean proiektuan parte hartu duten elkarthei, «webguneak modu autonomoan elikatu, mantendu eta kudeatu ahal izan ditzaten».



Proiektuan inplikaturako erakunde eta eragileetako ordezkariak, asteartean, parte hartu duten ikasleekin. J. LEON

Multitudinario último adiós a Benantzio Otaegi

Cientos de elgoibartarras abarrotaron ayer por la tarde la iglesia parroquial de San Bartolomé para despedir a Benantzio Otaegi, quien ejerció como párroco del pueblo durante tres décadas (de 1993 a 2022). La misa funeral en honor de Otaegi, que falleció el lunes a los 81 años de edad, estuvo presidida por el obispo de la Diócesis de Gipuzkoa, Fernando Prado, que estuvo acompañado por el vicario general, Mikel Aranguren, por el administrador de la parroquia de Elgoibar, Horacio Argarate, y por otros 23 sacerdotes. El oficio contó con la participación del coro parroquial y arrancó con unos bertsos cantados por un amigo del difunto.



J. LEON